



3 UDALBATZARRA

PSEren mozioa

onartu eta Somoto auziaz jardun dute

Talde sozialistak bultzatuta eta PPren aldeko bozkekin, Pablo Garaikoetxea ikastetxe-ko leihoak aldatzeko mozioa onartu egin zuten asteartean. Gainontzeko alderdiak abstenitu egin ziren, obra egiteko nahikoa dirurik ez dagoela argudiatuta. Pablo Barrio alkateak bestalde, aurreratu zuen datozen egunetan Somoto auziaren detaile gehiago jakingo direla eta ezohiko udalbatzarrak deituko duela gaia jorrazteko.

4 KULTURA

Aukera ugari

euskarazko produktu sorten katalogoan

Gabonetako Festen etorreraren aitzakiarekin euskarazko liburu, musika edo jokoak oparitu nahi dituenak badauka non begiratu. Euskarazko produktuen katalogo berria sortu dute Euskal Herriko ehun bat udalek, gurasoentzat eta 16 urte arteko haur zein gazteentzat ehunka erreferentzia biltzen dituen. Lasarte-Oriako Udalak ere hartu du parte egitasmoan; herriko 2000 etxetan banatu da katalogo berria.



Bizikidetzaren lorea ureztatuz

Giza Eskubideen Nazioarteko egunaren harira, ekitaldia herenegun

Giza Eskubideen eguna izan zen abenduaren 10a, eta Lasarte-Orian ere ospatu zen egun hori. Ekitaldia antolatu zuen Udalak herenegun, Manuel Lekuona kultur etxean. Ekitaldiaren simbolo gisa loreak hautatu zituen Udalak. Pablo Barrio alkateak azaldu zuen zergatia, asteazkeneko ekitaldian: "Egunero zaindu behar den lorea da bizikidetzak; herritar guztion artean egin behar dugu lan hori".



Herenegungo ekitaldiko partaideek argazkia atera zuten denek elkarrekin, amaieran.

TXEMA VALLÉS

Hiru urte" daramatza Udalak "herritarrek 1936tik gaur egunera arte pairatutako giza eskubideen urraketak" aztertzen. Herenegun "biktimen identifikazio fasea" jendaurrean azaldu zuen, ekitaldi opor baten bitartez.

Maider Segurola herriko kazetariak egin zituen aurkezle lanak.

Herriko historia azaleratzen

1936. urtetik gaur egunera arteko biktimen identifikazio fasean zenbait elkarterekin egin dute lan, Udalarekin batera.

1936ko Gerra Zibila eta ondorengo urteetako historia azaleratzen dabil herriko Islada Ezkutatuak taldea. Talde horrek osatu zuen lehen blokea, Joseba Tapia herriko musikariarekin batera.

Islada Ezkutatuak izan zen oholtzara igotzen lehena, Maider Seguroalaren galderak erantzutera. "Urte horietan gure herrian gertatutakoa jakin nahi dugu, gorrotorik eta mendeku nahirik gabe",

azaldu zuen Mikel Amenabar taldeko kideak.

"Asteartero biltzen gara; altxor bat da gure taldea. Asko ari gara ikasten beraiekin", zehaztu zuen Mailu Arruti Islada Ezkutatuak taldeko kideak. "Herritarrei esker eman nahi dizkiegu, garai haietako objektu, testigantza eta oroitzapenak gurekin partekatzeagatik".

Joseba Tapia musikariak pare bat abesti jo zituen, gitarrak lagunduta. Gerra Zibilaren garaian 21 urte zituen mutil tolosar bat zen protagonista, Luis Rezola 'Tximela'.

Indarkeriaren aztarnak

Euskal Memoria fundazioak txosten bat egin du, 1960tik 2014ra arteko gatazka politikoetan herritarrek pairatutako ondorioak biltzen dituen. Arantxa Erasun fundazioko kidea elkarrizketatu zuen Maider Segurolak. "Gatazka politikoetan lasarteorietan jasandako ondorioak bildu ditugu, eta baita Lasarte-Orian jazotako zen-



Irudian, herriko Islada Ezkutatuak taldea, Maider Seguroalaren galderak erantzuten.

bait gertakari ere, nahiz eta biktimak herrikoak ez izan", azaldu zuen Erasunek.

Joxe Mari Carrerek bi istorio kontatu zituen, eta bukaerari "hitza" eta "oroimena" hitzak lotu zituen: "Elkarrekin doaz oroimena eta hitza. Oroimena, gertatutakoa ez ahazteko; hitza, gertatu dena kontatzeko".

Bakea eraikitzeke garaia

Baketik elkarteko Iker Uson izan zen hirugarren elkarrizketatua. "Gizartea prest dago bakea eraikitzeke, baina egia

da bakoitzak bere oroimena daukala, samina. Konpondu beharreko gauza asko daude oraindik. Aurrera begira Giza Eskubideetan oinarritutako gizarte bat adostu behar dugu, guztion artean".

Elkarrizketen erronda bukatu ostean, Kukai dantza taldeak eman zion amaiera ekitaldiari, 'Gelajauziak' ikuskizunaren zati bat oholtzaratuz. Kultur etxera joandako herritarrek txalo zaparrada luzeak eskaini zituzten herenegungo ekitaldian parte hartu zuten guztiei.

leima
Antenas S.L.

ANTENA KOLEKTIBOetan
INSTALAZIOA, MANTENUA eta
KONPONKETA

Zatoz eta galdetu!

Hipodromo 6 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 247034
leimalasarte@euskalnet.net

ZURE KOMUNITATEA,
DIVIDENDU DIGITALERA
EGOKITZEN DUGU!

ELECTRICIDAD
ARREGUI

ETORRI GURE
ESKAITZA BEREZIAK
IKUSTERA!

www.electricidadarregui.com
Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxe: 943 372521

Neure kabuz



Jexux Artetxe
Lete eta aberria

Joan den astean bete da Xabier Lete Jhil zeneko laugarren urteurrena. Bere adierazpenetako batzuk berrikusten aritu naiz gaurko zutabea abiatzeko laguntza bila. Bere pentsamoldea ezagutzeko aipatuenetakoak ez badira ere, Xabierrek aberriaz esan zituenak oso gogokoak ditut. Abertzaleok arazorik gabe gureak egingo genituzkeen burutapenak dira. Aberriarekiko maitasuna, arbasoenganako begirunea, sorlekuaren aurreko atxikidura, hizkuntza eta kultura ederragotu nahi izatea, ... "Aberria senidego bat bezala da... eta ez du etsairik behar", gaineratu ohi zuen berak. Baina, etsai bila altxatzen den nazioaren bandera erabiltzearekin ez zen bat etortzen.

Gaia agertzeko orduan, gerra aurreko olerkariak irekitako bidea hartu zuela zioen Letek. Hala uste dut nik ere. Gure herriaren jarraikortasunaz arduraturik zegoen Orixe, Euskaldunak poemaren atarian. Hari beretik, Lizardik ezin hilkor litzatekeen herri-baratzarekin (aberiarekin) amestu zuen. Etorkizuneko aberri-bidea egiteko, sukaldea goritzeko pizkundea eragitera deituz. Pizkundearen "suaren suak inguru guztiara gure izatearen zergaitia, aberriaren garrantzia eroan dagian", idatzi zuen halaber Lauaxetak.

Bide beretik doa, nere ustez, Jon Sarasuaren hausnarketa. Euskaldunon egungo desafioen artean, egitura politikoarena (Etxea) eta herriaren jarraidura (Sua) bereizi ditu honek. Etxea eraikitzea lehenetsi behar dela esaten dutenen aurka, Sarasuak dio euskaldunok etxe propiorik gabe bizi izan gara, eta "hori horrela izanda ere, gure kulturaren Sua, euskaltasun hau, euskal izaera hau, transmititzea lortu dugula". Urteetako ezbehar eta okerraren ezin esanezkoen gainetik, katea ez da eten. Zenbaitzuentzat, ordea, aberria galga bihurtu da. Euskaltasuna aldarrikatzeak despisterako erabil daitekeela esaten dute, orain ez omen duelako indar askatzailerik. Argudio lanbrotu hauen artean, "asaba zaharren baratza" ez dela nabari azaltzeko, Xabier Leteren hitzak hartzen ditut berriz ere. Ez gaitezen presta, horratik, "etxe hustua arrotz guztiei saltzera".

Zorion agurrak



Zuriñe

Zorionak wapisima! Ondo pasa 16an, zure 8. urtebetetzean. Muxu asko familiaren partetik!



Odei

Zorionak!! Abenduaren 14an 9 urte. Muxu handi bat familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!!



Maitane

Orain dela hemezortzi urte izar bat lurrean erori zen eta unibertsoa argitu zuen. ZORIONAK!



Eusebio eta Mariluz

Zorionak aitona eta amona! Ondo pasa eta disfrutatu! Muxuak Eneritz, Eñaut eta familiaren partez.




Telmo, Ganix eta Luken

Zorionak hirukote. Azkenean iritsi zaizkizue lau urteak. Zuek bai "super"maitekorrak. Lau muxu bana eta jan banana.



Arhane

Zorionak gure printzesari. Ondo pasa zure egunean. Zure aitona-amonak, osaba-izebak eta lehengusuak.



Fran eta Nerea

Hasi berri dezuten ibilbide honetan hobereña OPA dizuegu.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Salerosketak

- 75m2ko etxea alokatzen da Sasoetan. Hegoaldera ematen du eta hiru gela eta bi komun ditu. 605 77 04 36
- Garajea saltzen dut Antxuenea Enparantza Sean. 600 414 331
- Garaje marra alokatzen dut Urbarten. Merke. 648 61 47 69.
- Tableta salgai. Nevir marka, android 4.1 sistema. GPU 512MB / RAM 4GB. 680 98 35 27
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Garaje itxia alokatzen da Kale Nagusian, Maxi Dia inguruan. 60 euro 943 57 59 64
- Umeentzako kotxe kapota Jane Slalom Bainera bat eta Mendira joateko motxila 637 05 63 54
- Etxea alokatzen dut San Martzial kalean, Tximistarreta parean. Prezioa negoziatzeko. 677 86 36 42
- Honda Accord markako auto bat saltzen dut. 5 ate ditu, gasolina, aire girotua ere bai. 63.000 kilometro, egoera onean. Prezioa: 1600 euro. 696 50 67 39.

Lan-eskaria

- Pertsona nagusiak zaintzen, etxean edo kanpoan lan egiteko prest. Badauzkat paperak.

674 59 80 99.

- Pertsona arduratsua eskaitzen da lan egiteko. Esperientzia zabala adinekoen eta gaixoen zaintzetan. Hasteko prest 680 98 35 27
- Edadeko jendea zaintzeko prest eguneko 24 orduetan. Paperak eta esperientzia. 645 78 72 72.
- Emakumea lanerako prest. Esperientzia fruta-dendan, pintaketetan, nagusiak zaintzen, nekazaritzan. 609 34 44 28
- Lana bila nagusien zaintzan. Paperak egunean eta esperientziarekin. 602 59 67 35 Jenny
- Interna edo externa moduan garbiketa edota zaintza lanak egiteko prest. 639 41 22 33
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 40 40 15 / 606 66 10 48

Lan-eskaintza

- Urtarrilletik maiatzarte Urdaira sagardotegian sukalderako edo zerbitzari lanetako emakumezko edo gizonezkoak behar dira. 619 40 36 91

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Mikel Jimenez Torrecilla abenduaren 1ean.



Heriotzak

- Domingo Garin Galarraga abenduaren 4an, 87 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 12	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 13	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 14	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 15	Gandarias-Urribi, l. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 16	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 17	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 18	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munterri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

PSE-EEren mozioa, onartuta

Sozialisten eta PPreen bozkekin onetsi da udalbatzarreko gai bakarra, Garaikoetxeako leihoak berritzeko mozioa

Talde sozialistak bultzatuta eta euren eta PPren aldeko bozkekin, Pablo Garaikoetxea ikastetxeko leihoak aldatzeko mozioa onartu egin zuten asteartean. Gainontzeko alderdiak abstenitu egin ziren, obra egiteko nahikoa dirurik ez dagoela argudiatu eta datorren urteko aurrekontuetan leku egitea egokiago ikusten dutela iritzita.

TXINTXARRI

Jesus Zaballos bozeramaileak irakurri zuen PSEren mozioa, Garaikoetxea ikastetxeko leihoak "lehenbailehen" aldatzeko eskatuz. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako 'Udalaguntza 2014' planak diruz lagunduko luke aldaketa, baina horretarako hilaren 18a baino lehen onartu beharko litzateke plenoan.

Bozketan, sozialistek soilik egin zuten mozioaren alde. Bildu, EAJ, LOHP eta adskribatu gabeko Marisa Zubiri abstenitu egin ziren. Zazpi bozka alde eta beste zazpi abstentzio beraz, Bilduko Nerea Sanchez eta LOHPko Ana Isabel Prieto ez baitziren plenoan izan.

Bozka justifikatzeko txandetan, Estitxu Alkorta EAJko kideak adierazi zuen obrak 400.000 euroko gastua izango lukeela Udalarentzat eta gaur egun ez dagoela horretara



Barriok aurreratatu zuen datozen egunetan Somoto auziaz detaille gehiago emango direla.

rako dirurik: "Kreditu bat eskatu beharko genioke bankuari eta hori datorren urterako zergapetzea litzateke. Ez gaude kontra, ezta gutxiago ere, baina gauzak lasai egin eta 2015eko aurrekontuetan sartu edo ez eztabaidatzearen aldekoak gara".

Bide beretik hitz egin zuen Gorka Lizarragak Bilduren izenean: "Ez gaude obra egitearen aurka, baina legegintzaldi honetan beste gauza batzuk lehenetsi ditugu, 2015eko aurrekontuei begira eztabaidatzeko gaia da".

Ondorioz, udal-gobernuak zail ikusten du mozioa aplikatzea, horretarako diru nahikorik ez dagoelako.

'Somoto auzia' eztabaidagai
Galdera eta erreguen txanda iristearekin batera hasi zen giroa berotzen. Jesus Zaballosek hainbat galdera egin zituen enplegu plana, herriko argi falta, Zentro Zibikoko emakumeek udalaren aldetik

jaso duten "atentzio eskasa" edota Sasoetako obren partehartze prozesuaren inguruan. Baina bereziki, Ana Urchueguiari jarritako demanda noiz kenduko ote duen galdetu zion Pablo Barrio alkateari; Iñaki Mugica eta Lourdes Acevedo alderdikideei "eragindako minagatik" barkamena eskatzearekin batera.

Barriok zentzu horretan erantzun zuen "datozen egunetan" ezohiko udalbatzarra deituko duela gai hori jorratzeko, demanda horrekin aurrera jarraitu edo ez plenoan erabakitzeko.

Ahal Duguren zalantzak

Maiatzeko udal-hauteskondeei neurria hartze aldera edo, Podemoseko kideak ere udalbatzarrean izan ziren herriko etxabeen higieñez eta erriberako hesiez galdetzeko.

Duela bi aste, udal-alderdi gisa eratzeko pausoez informatzeko bildu ziren Xabier Egea udal-idazkariarekin.

GAZTEAK

Gabonak girotzeko ekintzak gaztetxoekin

Amaraun klubekoak Olentzeroren etxera joango dira Abenduaren 22an, 10:30etatik 17:00ak arte. Irteera 2007, 2008, 2009 eta 2010ean jaiotakoentzat dago prestatuta. Hamaiketako eta bazkaria eraman behar dituzte gaztetxoek eta Zaharren egoitza aurrean egin dute hitzordua. Prezioa 26 eurokoa da; Ttakuneko bazkideek 23 ordaindu beharko dituzte.

Gazte klubekoak berriz, LH3-LH6koak, BEC-era joango dira Gabonetako Parkera abenduaren 30ean, 9:30etatik 18:30ak arte. Bazkaria eta merienda eraman behar dituzte. Irteera honen prezioa 24 eurokoa da, 21 Ttakuneko bazkideentzat.

Bi irteerarako izena eman daiteke 943 371448 telefonoan, e-mailaz aisia@ttakun.com helbidean edo Ttakunen bulegoan bertan. Ordainketak bulegoan eskuz edo txartelarekin edota transferentziaz ere egin daitezke 2095 5048 18 1061552351 kontu-zenbakian.

UDALA

Sasoetako pasabideen eraisketak esleitzeko prozedura martxan

Udaletik jakitera eman denez, azaroaren 25ean Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratu ziren pleguen bitartez Sasoetako hainbat pasabide eraisteko lanak egingo dituen enpresa aukeratzeko prozedura martxan jarri da. Enpresa ezberdinek dute orain proposamenak aurkezteko epea abenduaren 21a bitartean eta hortik aurrera esleipena egiteko lanak hasiko dira. Prozedura administratiboak bi hilabete inguru irautea aurreikusten du Udalak eta "beste arazorik ez balego" errepentea egin ondoren, obra burutzeko enpresa arduradunak hiru hilabete eta erdiko epea izango du. Lanen kostua 357.487 eurokoa izango da.

AISIALDIA

Sasoetako Urtxintxek bigarren irteera egingo dute igandean

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko umeen artean euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, Sasoetako Urtxintxak ekimenak aurtengo ikasturteko bigarren irteera antolatu du. 'Erpurutxo' antzerkia ikusi zuten azaro erdialdean, eta eguraldi ona badute, Andatza mendi magalean lurperatuta dagoen balea bisitatzera joango dira igande honetan. Bidean hainbat joku egingo dituzte urtxintxek, euren bi xede nagusiak uztartuz: euskararen erabilera sustatzea umeen artean eta ongi pasatzea. Iaz ere antolatu zuten ekintza hori; Andatzako balea bisitatu zuten.



Edukiontzia kaleetatik kentzeko eskatu zuen Lasarte-Oria ZZ taldeak

Zabor edukiontzia "gera ideologikoa" aldarrikatu dio Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartek. 'Zabor edukiontzia birziklatzera!' kanpaina jarri du martxan; Lasarte-Oriako taldeak herriko hainbat zabor edukiontzia zigitatu zituen, kanpainarekin bat eginez.

Herriko zenbait zabor edukiontzia zigitatu eta herriko udal ordezkariari eskatu zien "kaleetatik kentzeko" zabor edukiontzia: "Zabor edukiontzia kentzen direnean gaikako bilketan jauzi ikusgarria ematen dela irakatsi digu esperientziak".

Zabor edukiontzia "guda"

Lehen esan bezala, Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartek zabor edukiontzia-aren aurka aldarrikatutako

"guda ideologikoa" segida eman dio Lasarte-Oriako taldeak, duela aste pare bat egindako ekintza horrekin. Herriko hainbat edukiontzia zigitatu dituzte, "osasun eta ingurumen kalteak" eragiten dituztela argudiatuz: "Zabor edukiontziek hondakinak nahastea ahalbidetzen dute, zaborra eta arazoak sortuz".

Jalgi taberna pareko, San Pedro eliza ondoko eta Kale Nagusiko autobus geltoki alboko edukiontzia zigitatu zituzten.

Herriko agintariei eskaera

"Gizon-emakumeon eskubi-deak bermatzeko betebeharrak dute agintariei. Ezin dute diru publikoa zaborra sortzeko bitartekoetan xahutu", adierazi zuen Lasarte-Oria Zero Zabor taldeak. "Materia orga-



Agerraldian edukiontzia zigitatuak erakutsi zituzten.

nikoaren kudeaketarako bitartekoak jarri behar diren honetan, pausu bat gehiago eman eta herriko agintariei eskatzen diegu zabor edukiontzia Lasarte-Oriako kaleetatik kentzeko".

"Guk ez diegu esango zeregin hori nola gauzatu behar duten; soilik eskatzen diegu euren betebeharrak betetzeko, gaikako bilketa eraginkor bat bermatzeko", esan zuten Lasarte-Oria Zero

Zabor elkarteko kideek, duela pare bat aste agerraldian.

Agerraldi horren bukaeran 'Zabor edukiontzia birziklatzera!' leloa argi eta ozen aldarrikatu zuten Lasarte-Oria ZZko kideek.

Kultura oparitzeko, katalogoa

Euskarazko produktuen katalogoa osatu dute Euskal Herriko ehun udalek, paperean eta sarean

Gabon garaia seme-alabei, senideei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota jokoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten da. Hori kontutan hartuta, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute Euskal Herri osoko ehun bat udalek, tartean Lasarte-Oriakoak. Gurean, 2.000 etxetan banatu du katalogoa Udalak, baina beste aleren bat gehiago eduki nahi duenak euskara zerbitzuan du eskuragarri.

TXINTXARRI

Edizio berri honek gurasoentzat eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen ditu. Zortzi ataletan sailkatuta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen

da, eta zenbait ataletan adinaren arabera banaketa ere egiten da. Merkatuan dauden produktuen artean hautaketa egin dute gainera, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta.

Edizio digitala

Paperezko edizioaz gain, merkatuan aurki daitezkeen beste produktu asko agertzen dira www.katalogoa.org webgunean. Aukera dago, gainera, argialetxearen denda



PAPEREZKO EDIZIOA, hautatutako produktuekin.
INTERNETen produktu gehiago eta azken ordukoak!

musika
filmak
informatika
aldizkariak
komikiak
liburuak
jostailu eta jokoak
gurasoentzako
materialak



www.katalogoa.org

Haur, gazte eta gurasoentzat ehunka erreferentzia biltzen ditu euskarazko produktuen katalogoak.

bertualera iristeko produktuen gainean klik eginez eta, nahi izanez gero, begiz jotako produktuaren erosketa etxetik egiteko.

Webgunea urte osoan kontsulta daiteke, eta erabiltzaileek iruzkinak egin ahal izango dituzte bertan, irakurri, ikusi, entzun edota josta-

tzeko hautatu duten produktuaren inguruan. Katalogoaren helburua erosleak izan daitezkeenei informazioa eman eta orientatzea da.

Bitik bi Earra! bertso-eskolarentzat

Tolosaldea garaitu ostean, Earra! bertso eskolako Ane Labakak, Unai Muñoak eta Asier Azpirozek Hernaniri irabazi zioten Jalgin joan den ostiraleko bertso desafioa.

Hernanitik gurera etorritako Arnaitz Lasartek, Iker Osak eta Oier lurrarendik ezin izan zuten ezertxo ere egin etxeko nagusitasunaren aurrean eta ikusleen 35 bozketatik, 26 izan ziren lasarteoriatarrentzat.

Ordu eta erdiko saioa izan zen, Uxue Loinaz gai-jartzaile lanetan zela. Denetarik gaiak jorratu zituzten. Esate baterako, Oier lurrarendik Labakari kotxea gasolinarik gabe eta lokaztuta itzuli zionekoa, Iker Osa aitaren sukarra eta bere seme txikiak izan ohi dituen etengabeko hizketaldiak, Unai Muñoa 'personal trainer' baten paperean, Arnaitz eta Aneren 'postre' eroak...

Ofizioka jarduteaz gain, bestelako ariketak ere egin



Herriko bertsolariak Ane Labaka, Unai Muñoa eta Asier Azpiroz izan ziren.

zituzten, Oier lurrarendi eta Asier Azpirozek batak besteari jarritako errimen bidez osatutako Habanerak, Labaka eta Lasarteren bederatziko txikiak, puntuka librean... Eta azken ariketa. Naufragoarena doinuarekin ikusleek bozka Hernaniri edo Lasarte-Oriari zergatik eman argudiatu zuten.

Azkenean bertsoak, puntuak, bakoitza bere lekua jarri zuen. Publikoak ez zuen gupidarik izan. Lasarte Oriak 26 bozka, Hernanik 9. Dena den,

beste behin ere, bertsolari gazteak izan ziren gaueko garaileak. Lehiak lehia, bertsoan egiteko beste plaza alai baten jabe egin direlako. Hurrengo saioa 2015eko lehena izango da, Andoainean aurkako desafioa izango du Earra! bertso-eskolak, urtarrilaren 16an.

Bestalde, Xenpelar bertsolari gazteen Sariko finalean egin zuen bertsoan Ane Labakak astelehenean, Oretetan. Nerea Ibarzabal bizkaitarrak irabazi zuen txapel preziatu hori.

Trumoi garaile



Aterpeak antolatutako II. Pintxo Lehiaketako sariduna argazkian.

Arkupe tabernari lekukoa Ahartu dio Trumoi, Aterpearen II. Pintxo Lehiaketa irabazi baitu herritarren bozkek zenbatu eta gero. Urdaiazpikoa, perretxikoak, piper berdeak, oliba olioia eta gazta urtua biltzen zituen ogi txigortu xerra bat prestatu zuen Trumoi aurtengo lehiaketarako. Denera zortzi tabernak hartu zuten parte: Yolandak, Galiziak, Abendek, Trumoi, Arkupek, Sanchok, Txanpak eta Buenetxeak.

Bozka eman zuten herritar guztiak 100 euroko txeke baten zozketan sartu ziren. Zozketa horretako saritua zein izan den ere jakinarazi du Aterpeak: Aitor Fernandezek irabazi du 100 euroko txeke hori. Aterpea elkarteko komertzio eta dendetan produktuak erostera bideratuta dago dirua.

Ostalariak pozik ziren Aterpearen II. pintxo lehiaketak azaroko azken asteburuan izandako harrerarekin.

ORDAINDU
12 HILABETETAN
INTERESIK GABE
TIN: 0% TAE: 0%

DESKONTU
IKARAGARRIAK !!!

HOZKAILU
KONBI
BOSCH

LEHEN
~~1490€~~

ORAIN
799€

Ref: 3KF39X142

Bideo TIEN 21

Lagunak

Etxekotresna elektrikoetan adituak

Zatoz eta konparatu!

Inguruko erakusketarik onena prezio onenekin.

EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



**Gipuzkoako komertzio txikia.
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**

LABURRAK.-

Ahazteko moduko jardunaldia Texas eta Ostadarren erregionaletako taldeentzat

Punturik ez zuten batu etxeko taldeek larunbatean Michelinen. Texas Lasartearrak Villabonaren aurka 1-5 galdu zuen I. Erregional mailan eta Ostadarreko ohorezko erregionalek emaitza bera erdietsi zuten, 1-5koa, Tolosaren aurka.

Ez zen batere goiz ona izan herriko futbol taldeentzat larunbatekoa Michelinen. Texas Lasartearra izan zen jokatzeko lehena. Saikapean lehenengo postuan dagoen Villabona taldearen aurka neurtu behar izan zituen indarrak eta txuri-urdirak ezinean aritu ziren. Partidaren lehenengo zatian etxekoek maila ona erakutsi zuten eta atsedenera banako berdinketarekin iritsi ziren. Bigarren zatia berriz, Vicente Gil entrenatzailearen esanetan, "oso txarra" izan zen. "Taldea gaztea da Villabonarena, indartsua; ezin izan ditugu gelditu". Lau gol sartu zituen Villabonako taldeak bigarren zatian eta Texasekoek "ezer gutxi" egin ahal izan zuten. "Aurkari gogorra izango zela bagenekien, baina ez genuen hainbeste gol espero" aitortu zuen Gilek.



Ostadarreko Ohorezko Erregional mailako taldea ere burua altza ezinik dabil. Bost gol jaso zituen eta bakarra sartu, bigarren zatian hasieran Gorka Britzek egindakoa hain zuzen. Lehenengo zatian hiru gol jaso zituzten eta bigarren zatian hasieran aukera batzuk izan arren, ezin izan zioten markagailuari buelta eman. Tolosarrek laugarren gola sartzearekin batera taldeak behera egin eta amaiera gogorra izan zen. Jaitsiera postuetan jarraituko du Ostadarrek. Bihar neurketa garrantzitsua du zuloan sartuta dagoen Antzuolaren aurka.

Babyauto Zarautz-Beltzak rugby taldeak Ohorezko B mailako lidergoa hartu du

Garaipen garrantzitsua asteburuan Babyauto ZRT-Beltzak taldeak erdietsitakoa. Saikapearen lehenengo postuan kokatu dira, baina larunbat eguerdiko partida ez zen batere erraza izan. Neurketari ekin bezain pronto, bigarren minutuan, Durango aurreratu zen markagailuan zigor-kolpe bat gauzatu ostean. Bigarren zatira arte, 78. minutara arte eutsi zioten emaitzari durangarrek, baina Lasarte-Oria eta Zarautzetik Bizkaia aldera joandako bi autobusek eman zieten mutilei markagailua iraultzeko behar zuten kemena. Azken emaitza, 8-13 gipuzkoarren alde. Unai Urruzola eta Xabier Rekondo herritarrek hasieratik jokatu zuten, 60. minutuan aldatu zituzten arte. David Vegak ez zuen minuturik izan. Hotza, euria, sufrimendua eta lidergoaren poza izan ziren protagonista larunbat eguerdian.

Buruntzaldea IKTko hiru igerilari Espainiako Absolutu Txapelketara

Gaurtik igandera bitartean taldeko hiru igerilari Sabadell-eko "Can Llong" igerilekuetan izango dira Absolutu mailako Espainiako Neguko Txapelketan parte hartzen. Iñigo Ibarburu 50, 100 eta 200 tximeletan arituko da, Itsaso Tolosa 100 eta 200 bizkar frogetan eta Mikel Esnal berriz, 50 libreetan lehiatuko da.

PILOTA.-

Mikel Goñi bihar Michelinen

Arteaga eta Elola herritarrek Goñi II.a eta Gorrotxategiren aurka

Goi-mailako esku-pilota larunbat arratsaldean Michelinen. Mikel Goñi eta Aitor Gorrotxategi Axier Arteaga eta Mikel Elolaren aurka neurtuko dituzte indarrak 17:30ean hasita. Ikusmin berezia sortu du aurreko koadroetako lehiak, Arteaga herritar gaztea Goñi II.a handiaren aurka arituko baita. Sarrerak aurretik 6 euro, bertan 8 euroko prezioan.

JON ALTUNA EGITEGI

Herriarteko txapelketaren finalaurrekoan Michelingo harmailek gutxitan ikusitako itxura hartu zuten ekainean. Irudi hori errepikatzeak aukera izango da larunbatean Michelinen. Oraingo honetan, Xirimiri Elkarteari babes emateko antolatutako eguna da, eguerdian babarrun jana egingo dute eta segidan, pilotalekura joango dira herritarrek bi partidaz gozatzeko. Bertan edarriekin barra bat jarriko dutela adierazi dute antolatzaileek.

Arratsaldeko 17:30ean ekingo zaio jaialdiari. Lehen partida Jon Pello Artetxek eta Ander Katalinak jokatu dute lau t'erdian.

Estelarrean berriz, Axier Arteaga eta Mikel Elola herritarrek arituko dira Mikel Goñi nafarra eta Aitor Gorrotxategi hernaniarraren aurka.

Profesional maila utzita, halako egunetan jokatzeko du Goñi II.ak. Oronozko mutila motibatuta dago eta erreparorik gabe erantzun ditu galdera guztiak.



Partidan bildutako dirua Xirimiri Elkartearentzat izango da.

Arg: GOIENA

Ze sasoi puntutan, ze gortzalditan ailegatzeko da Mikel Goñi Lasarte-Oriako hitzordura?

Ez dakit, azken partidak jokatzeko gustura aritu naiz eta azkenean horrek erritmoa ematen dizu. Arteagaz oso ongi hitz egin didate, printzipioz partida erakargarria da, Gorrotxa eta Elola ezagutzen ditut eta onak dira atzean. Aurrean espektakulua ematen saiatuko gara.

Borroka izango dela beraz aurreko koadroetan Arteaga eta zeure artean...

Baietz espero dut, jendeak hori nahi du, lehia izatea aurrean tanto ederrak ikusteko. Arteaga ez dut ezagutzen, baina esan didate mutil ausarta dela, gantxoaz ondo moldatzen dena eta tantoak erraz bukatzen dituena. Udan partida asko jokatu ditut eta nerbioz eta nekatu xamar amaitu nuen. Intenzio onenarekin noa, pasa den asteko partidaren ongi aritu nintzen.

Jokatu al duzu inoiz Lasarte-Orian?

Sekula ere ez, baina astebururo hara eta hona ibiltzen garen, ohituta gaude frontoi ezberdinetan jokatzera. Alde horretatik, ez dago inongo aitziarik.

Hemen gauza ziurra da Mikel Elolak eta Aitor Gorrotxategi atzean partida handia egingo dutela eta aurrean erabaki beharko dugula. Gure esku egongo da. Ea Arteaga gazteak zaharrari errespeto pixka bat agertzen dion eta neurketa on bat jokatzeko dugun bitartea.

Badakizu Mikel jendeak batik-bat zu ikusteagatik ordainduko duela sarrera... Pilotalekuetako gata eta piperra zara oraindik. Bihar ikuskizuna ziurtatuta al dago Michelinen?

Ikuskizuna ziur izango dela, ez dakigu zer motakoa izango den, baina ikuskizunik ez da faltako frontonean.

Udaran partidu asko jokatzen arren, fresko nago eta partidu on bat egin nahi dut. Arteaga aurrean nahasten saiatuko naiz ikusleek goza dezaten.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 13

Michelin, 10:30ean

Ostadar SKT - SANSE B
Kadete I. maila,
13. jardunaldia.

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Herrerako
Sporting
Jubenilen I. maila,
13. jardunaldia.

Zubieta, 12:30ean

Reala - Ostadar SKT
Infantilen Ohorezko maila,
11. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Texas Lasartearra - Usurbil
Jubenilen I. maila,
13. jardunaldia.

Herrera, Donostia 15:30ean

Asoleus - Texas Lasartearra
I. Erregional maila,
13. jardunaldia.

Estala, Antzuola 15:45ean

Antzuola - Ostadar SKT
Ohorezko Erregional maila,
14. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Ostadar SKT - Hernani
Jubenilen Ohorezko maila,

Igandea 14

Unbe, Eibar 11:00etan

Eibar - Ostadar
Infantil Txiki Errendimendua,
3. jardunaldia.

Harane, Usurbil 15:30ean

Ostadar SKT - Eibar
Kadeteen Euskal Liga
14. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 13

Asti, Zarautz 10:30ean
Zarautz/Beltzak - Getxo
Sub 16

Asti, Zarautz 12:00etan

Zarautz/Beltzak - Getxo
Sub 18

Asti, Zarautz 16:00etan

Zarautz/Beltzak - Urbealde
Ohorezko B maila

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 12

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean
Urdaneta HK - Bar El Punto
Michelingo kirol-gunea, 20:45ean
Txoko Taberna - Izkiña

Larunbata 13

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean
Txindoki - Indaux

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Reformas Lagunak - Trumoi
Michelingo kirol-gunea, 11:15ean
Insausti - Also
Michelingo kirol-gunea, 12:15ean
Ilargi - Viña del Mar

ATLETISMOA

Larunbata 13

Orio, 16:30ean

Herriko hainbat korrikalarik Orioko IV. herri-krosean parte-hartuko dute bihar arratsaldean. Bi ibilbide izango dituzte aukeran, 7 kilometrokoa (zirkuituari itzuli bat) edo 14 kilometrokoa (bi itzuli).

Agenda

Gaur, Brigitarren Komentuan 19:30ean



Ertizka Otxotearen kontzertua

Danok Kidek antolatutako X. Musika Topaketan baitan, Añorgako Ertizka Otxotearen kontzertua izango da Brigitarren komentuko kaperan. 2001 urtetik Ramon Berazak zuzendutako hamabi ahotseko taldeak, "ume eder bat" edo "Maitia nun zira" eta "Boga, boga" euskal kantak abestuko ditu emanaldiaren bigarren zatian. Taldeak hainbat emanaldi eskaini ditu nazioarte mailan ere. Sarrera doan.

ELEBELTZ TOPAGUNEA
Abenduak 26 eta 27, 20:00etatik
II. Fabrimusikala musika jaialdia egingo da Elebeltzen.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, DONOSTIA
Abenduak 22, 20:00etan
'Urteagako ahotsak' emanaldian parte hartuko du herriko SuBerri akordeoi taldeak, Donosti Ereski abesbatza eta Koruko Ama Birjinaren eskolarekin batera.

Erakusketa
JALGI KAFE ANTZOKIA
Abenduan zehar
El Estudio del Pintor-eko ikasleen margolanak ikusgai.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 12tik 19ra 18:00etan
Xabier Amonarriren "Egurra eta Torua" erakusketa.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 12, 22:00etan
'Loreak' filma ikusteko aukera izango da Okendo Zinema taldearen zine forumean. Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzendutako lanak hainbat sari eskuratu ditu Donostiako Zinemaldian aurkeztu zenetik. Euskaraz gaztelerazko azpitoluekin. Sarrera 4,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 13, 22:00etan
'Loreak' filma helduen zinema ata-

lean. Sarrera 5,90 euro.
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 14, 17:00etan
'Ninja turtles 3D' filma izango da haurrentzako zinema egitarauaren baitan. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 14, 19:30ean
'Loreak' filma ikusteko aukera izango da helduen zinema atalean. Sarrera 5,90 euro.

Ipuin-kontalaria
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 17, 18:00etan
Kontukantoi herriko ipuin kontalarien saioa izango da. Honakoa 6, 7 eta 8 urteko umeei zuzenduta egongo da. Doan.

Musika
BRIGITARREN KOMENTUA
Igandea 14, 12:30ean
Alboka abesbatzaren emanaldiaz gozatu ahal izango da. Sarrera doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Asteazkena 17, 19:00etan
Udal Musika Eskolako ikasleek Gabonetako Kontzertua eskainiko dute.

Usurbil

Musika
SAN SALVADOR PARROKIA
Igandea 14, 13:00etan
Antonio Mercero lasarteoriatarren oroimenezko kontzertua izango da. San Pedro parrokiako organista izan zen eta lan handia egin zuen koruarekin. Erlijio-musika konposatzailea, moldatzaile eta letra egilea. Ainhoa Merzero sopranoak zabalduko du emanaldia eta honetan asko izango dira parte hartuko dutenak. Doan.

Herritarren txokoa

Korrikaren materiala
Martxoaren 19tik 29ra egingo da 2015ean Korrika. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Munterri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrek euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko orduetegan.

Danok Kideren jaiotza lehiaketa
Danok Kide elkarteak, aurten ere, jaiotzen lehiaketa antolatu du. Hauek dira parte hartzeko oinarriak: jaiotzak gehienez, 80x60 zm-ko neurriak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen lanik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko. Jaiotzarekin gutun-azal batean egin leen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzita eman behar da.


Jaiotzak aurkezteko egunak abenduaren 19 eta 20a izango dira. Danok Kide elkartearen egoitza Blas de Lezo kaleko 11 zenbakian utzi beharko dira 18:00etatik 20:00etara. Abenduaren 28an sari banaketa egingo da.

Galdutako gauzak
Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota: hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Sarean

Xaloea Telebista Iruñerrian martxan jartzeko Crowdfunding kanpaina



Xaloea Telebista Iruñerrian martxan jartzeko kanpaina abiatu zen azaroan. Komunikabideak leihio berria irekiko dio euskal kulturari, euskara hutsezko programazioa eskainiz. Euskarazko telebista berriak abenduan hasiko ditu probako emisioak, eta azpiegitura teknikoak martxan jartzeko 50.000 euroko inbertsioa egin behar du.

Hori finantzatzeko, telebistak diru-bilketa edo crowdfunding kanpaina bat abiatu du KARENA plataforma euskalduneari. Besteak beste, Euskaltzaleen Topaguneak, TOKIKOMek eta Udalbiltzak ere bat egin dute kanpainaren helburuekin, euskalgintzako beste hainbat eragilerekin batera. Euskal Herri osora zabalik dagoen kanpainak 40 egunetan 50.000 euro horiek ekarpen txikien bidez biltzeko helburua jarri du.

Crowdfunding kanpainako lotura: <http://karena.eu/proiektua/xaloea-telebista-irunerrian> da.

Santo Tomas Azoka datorren astean

Egitarau zabala prestatu du Ttakun Kultur Elkarteak datorren asteko iganderako

Gabonetako festak gero eta gertuago daude. Santo Tomas jaia izango da lehen hitzordua, urtero bezala. Baserritar jantzia prest edukitzea komeni, datorren asteko igandean, abenduaren 21ean Okendo plazan ospatuko den jairako. Aurtengo Santo Tomas jaia goizean zehar egingo da, 11:00etan hasi eta arratsaldeko laurak bitartean. Txistorra, taloak, Telleri baserritik ekarritako txerria, bertsolariak, erromeria... egitarau oparoa Gabonei ongi etorria egiteko.

TXINTXARRI

Gabonak iristear dira. Familia giroan bazkari eta afariak, Olentzeroen etorrera... baina horiek baino lehen, Santo Tomas jaia. Hori izaten da, urtero legez, Gabonetako Festetako lehen hitzordua.

Datorren asteko igandea izango da abenduaren 21a, Santo Tomas jaia ospatzeko eguna. Ttakun Kultur Elkarteak egitarau zabala prestatu du, jai hori behar bezala ospatzeko. Herriko Okendo plazan egingo dira programako ekintzak.

Hasiera, goizean

Azken urteotan arratsaldez ospatu izan da herrian Santo Tomas, baina aurtengoan igan-

dea tokatzen denez eta askok hurrengo egunean lana egin beharko dutenez, jaia goizetik ospatzen hastea erabaki du Ttakun KEK.

Hamaiketan hasiko da aurtengo feria. Okendo plazara hurbiltzen direnek talo, txistorra edota gaztainak (2 euroko prezioan gaztainak) dastatu ahaliko dituzte; egarria asetzeko berriz, sagardo freskoa.

Beterriko talogile bereziak ariko dira taloak egin eta jendartean banatzen. Talogileen 'harrobia' ere landu nahi du Ttakun KEK, eta azken urteetan egin bezala talo tailerra antolatu du haurrentzat.

Aurtengo Santo Tomas jaiko egitarauaren lehenengo ekintzan ere etxeko gaztetxoek izango dira protagonista;



Erromeria jendetsua egin zuten lehengo urteko Santo Tomas jaietan, Okendo plazan.

hurren erromeria hasiko da 11:30ean.

Ondoren, eguerdiko hamaiketan, bertso doinuak entzuteko aukera izango da Okendon.

Santo Tomas jaia ospatzearekin batera, Gabonetako Festei ongietorria ere egingo zaie datorren asteko igandean Okendo plazan. Eta, nola ez, gabonetako katek presentzia izango dute jaiaren egitarauan. Herriko Xumela abes-

batzaren eskutik herritarrek gabonetako kantak abesteko aukera edukiko dute. Ekintza hori 12:30ean hasiko da, bertsolarien emanaldia bukatu eta berehala.

Bertsolarien koplak eta ahotsak entzun ostean beraz, herritarrena izango da abesteko txanda.

Bazkalordurako gosea egiten hasteko gorputza dantzan jartzea baino hoberik ez dago, eta hori egiteko aukera edu-

kiko dute herritarrek, Xumelarekin batera abestu ostean. 12:45etatik hasita, erromeria antolatu du Ttakun KEK Okendo plazan.

Hainbat elkartet hartuko dute parte erromeria horretan: Kukukak, Erketzek, Ttiriki Ttarakak, txistulariek... plazadantza saioa ere prestatu dute abenduaren 21erako.

Arratsaldeko laurak aldera bukatuko da herrian Santo Tomas jaiaren ospakizuna.

Pirritx, Porrotx eta Marri Motots

Biko puzzlea:
Etxeko txikienezat, zerbakiak eta pertsonaiekin jolasteko.

Sentituz bilduma ipuinak:
Etxeko txikienezat kartoizko 4 ipuintxo.

Dominoa:
Domino klasikoa eta gure pertsonaien jolasa.

Bizipoza Plaza ipuina:
Bilduma berriko laugarren ipuina.

Ongi etorri Pupu eta Lore Plaza ipuina:
Bilduma berriko hirugarren ipuina.

Aurtengo nobedadeak!!!

Txo, mikmak txikia CD-liburua:
19 abesti eta 19 ipuintxo.

Bizipoza + Sentitu... Sinfonikoa DVD bikoitza:
Zuzeneko ikuskizunak

eskaerak: www.katxiporreta.com

Katxiporreta KOOP.E.

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404